

Harian

17 ■ Beherapenak Lurraldebusen

» Lurraldebusen erabiltzaileek %4,0ko beherapenak izango dituzte Gipuzkoan, lehen bidaiaitak.

Altxor mehatxatuak

Hezeguneen erdiak baino gehiago galdu dira historian zehar gizakiak eragindako presioaren ondorioz. Gaur egun, batzuek babes legala badute ere, oraindik ere mehatxupean daude asko eta asko.

INAKI PETXARROMAN

Ez dute historia samurra izan hezeguneek. Antzinatek gaitzen transmisioarekin lotu izan dituzte gizakiek, ur sistemak direnez. Haiek suntsitu eta desagerraraztera jo izan dute, ondorioz. Azken urteetako hirigintza eta industria garapen handiak guztiz desagerrarazi

ditu hezegune asko eta asko, batez ere kostaldean.

Eusko Jaurlaritzaren Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren arabera, Gipuzkoa eta Bizkaian zeuden jatorrizko hamazazpi itsasadarretatik zazpi guztiz desagertu dira: Bilbo, Bermeo, Ea, Saturrarán (Mutriku), Ondarreta, Urumea (Donostia) eta Pasaia... Hain zuzen ere, kostaldeko hezeguneen erdiak. Jatorrizko egoeran, hezeguneen %20 baino ez daude, iturri beraren arabera.

Gizartea eta erakunde publikoak azken urteotan hasi dira kezkatzen hezeguneen inguruan. 1971n onartu zen Iranen Ramsar Hitzarmena, Nazioarteko Hezegune Garantzisuenen Zerrenda. Horrek babesa eman die mundu osoko dozenaka hezegunerari, tartean Euskal Herriko bederatziri.

Geroztik babesa zabaldu da

tokian-tokian, eta gaur egun Euskal Herriko hiru administrazioek babesten dituzte hainbat hezegune. Kontzientziazte horren erakusgarri da, adibidez, bihar izango den Hezeguneen Nazioarteko Eguna.

Mehatxua larria da oraindik, ordea. 1990eko hamarkadatik hona hezeguneen %14 desagertu dira kostaldean, portu, garraio azpiegitura, hirigintza proiektu edota kirol azpiegitura berrien ondorioz. Azken urteotan guztiz desagerrarazi dituzte Donostiako Amara eta Loiolako Urumeako bazterretan geratzen zen paduraren hondarrak, eta Barakaldoko Zuloko-Ibarrak hezegunea, esaterako. Barnealdekoek, nekazaritzatik datozkie erasorik larrienak, baina kostaldekoak baino hobeto daude.

Sakonera gutxiko ur azalerak dira hezeguneak. Bi multzo zaba-

letan bereizi izan dituzte adituek, itsasaldekoak eta barnealdekoak. Itsasaldekoak itsasoaren eta ibaien arteko muga egiten dute; barnealdekoak, berriz, ur masa iraunkor edo noizbehinkakoak izaten dira, ibai, iturri edo urtegiekin lotuak. Ekoizpen biologiko handiko guneak izanda, animalientzako ezinbesteko bazkaleku dira. Hala, espezie ugari bildu ohi dira haietara. Bioaniztasun handiko ekosistema aberatsak dira, eta oso espezializatuak, gainera. Alegia, bertan egoten diren bizidunak ez dira beste inon agertzen. Hala, hezegunea desagertuz gero, bertan egoten diren espezieak ere desagertzen dira harekin batera.

EUSKAL HERRIA: TRANTSIZIO EREMU. Euskal Herriak badu berezitasun bat. Izan ere, bi eskualde biogeografikoren artean kokatua dago: eurosiberiarra eta mediterraneorria. Bi eskualdeen arteko trantsizioa Euskal Herrian dago, eta horren ondorioz, mota askotako hezeguneak aurki daitezke oso eremu geografiko txikian.

Itsasertzeko urmaelak

1 Barren eta Txiberta

Itsasadarrek eta padurak

- 2 Donibane Lohizune eta Sokoako padurak
- 3 Txingudi
- 4 Oriako itsasadarra
- 5 Zumaia-Urolako itsasadarra
- 6 Leako itsasadarra
- 7 Urdaibai
- 8 Plentzia-Butroeko itsasadarra
- 9 Muskiz-Barbaduneko itsasadarra

Glaziar jatorrikoak

10 Ezkaurreko iboia

Zohikaztegiak

- 11 Hiruiturrieta
- 12 Egurgi
- 13 Ibainieta
- 14 Belate
- 15 Mendaur
- 16 Usabelartza
- 17 Arbarrain
- 18 Berdeoespesoa
- 19 Saldropo

Hezegune karstikoak

- 20 Etxekortia aintzira
- 21 Sasiko urmaelak
- 22 Iza eta Lozako urmaelak
- 23 Unako putzua
- 24 Entzia, Urbasa eta Andia
- 25 Bikuñako urmaela
- 26 Santa Barbarako urmaela
- 27 Olandinako urmaela
- 28 Altubeko urmaelak
- 29 Arreko aintzira
- 30 Ultzamako harizti istilduak
- 31 Landoko istilak


Endorreikoak

- 32 Guardiako aintzirak
- 33 Nabaridasko urmaela
- 34 Las Cañas urmaela
- 35 El Juncal urmaela
- 36 Pitillasko urmaela
- 37 Badina Escudera urmaela
- 38 Agua Salada urmaela
- 39 El Pulguei urmaela
- 40 Lor urmaela
- 41 Dos Reinos urmaela
- 42 Bardeako multzoa
- 43 La Muedako urmaela

Ibaien ondoan sortutako hezeguneak

- 44 Aturriko bartak
- 45 Errobiko bartak
- 46 Astrabuduako ibarra
- 47 Bolueko istilak
- 48 Mezkiako istilak
- 49 Salburua eta Arkauteko urmaelak
- 50 Iarorzana urmaela

Euskal Herriko Hezeguneak



ITURRIA: EUSKAL HERRIKO HEZEGUNEAK (ELHUJAR)